


Heldukeria



ANTTON OLARIAGA



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Borroka guztietan aliatuen paperak berebiziko garrantzia dauka, kontraesanak kontraesan. Zuria naiz eta hala ere antirrazismoan hasi nintzen militatzen. Mutil laguna nuela sexu aniztasunaren aldeko aktibismoa egiteari ekin nion ere. Ordea, noizbait haurra izan banintzen ere, ama izan arte ez naiz heldukeriaren bortxaz ohartu. Izan ere, zapalkuntza bizi dutenei subjektu politikoaren estatusa ukatzen zaienean zaila da aliatuak lortzea. Haurrekin gertatzen da hori gurean, baina baita ere zaharrek, desgaitasun intelektuala dutenekin edota gizaki ez diren animaliekin. COVID-19aren kudeaketak agerian utzi ditu botere ardatz horiek guztiak: heldukeria, adinkeria, kapazitismoa, espe-zismoa. Aitzitik, kalean gutxi ezagutzen dituzten hitzak dira, eta hori ere sintomatikoa da.

María José Capellín antropologoak BBVA siglak erabili zituen gizarte kapitalista patriarkalean boterea duen subjektua definitzeko: “*Blanco, Burgués, Varón y Adulto*” (txuria, burgesa, gizona eta heldua). Onartu behar dut azken letra horren esangura zela niretzat lausoena. Ama izan naizenean, ordea, haurren ikuspuntutik aztertu ditut lehen aldiz feminismoan pil-pilean dauden hainbat gai:

Amatasun eta aitatasun baimenen in-guruko eztabaidan, helduen kontzilia-zio beharrak eta erantzukidetasun falta jartzen dira erdigunean. PETRA Amatasun Feministak plataformak, ordea, salatu du hamasei asteko guraso-baimen parekide eta besterenezinen neurriak edoskitze naturala oztopatzen duela eta guraso bakarreko familietan jaiotakoak diskriminatzen dituela.

Haurdunaldi subrogatuaren eztabaidan ere korapilo berriak antzeman ditut: alde batetik, niretzat berebiziko garrantzia hartu duten erditze errespetatua, atxikimenduzko hazkuntza eta edoskitze naturalarekin bateraezinak direla; bestetik, epaileak debekuari tin-ko eusten dienean (Frantzian gertatu den bezala), haurraren interes gorena-ren kalterako dela, haren familiaren-gandik aldendu eta adopzioan emango dutelako.

Indarkeria instituzional benetan bortitzak bizi dituzte haur askok eta askok, esaterako, etorkinen seme-ala-bek. Batzuk guraso barik hazten dira, Atzerriartasun Legeak berriz elkartzeko ezartzen dituen baldintza zorrotzen erruz. Espainiar estatuan jaio direnei ere ez zaie espainiar nazionalitatea aitortzen. Eta gurasoak paperik gabe badaude, umeak babes gabe geratzeko

arriskuan biziko dira.

Beste adibide bat motxiladun umee-na da, alegia, lege antiterroristaren eta dispertsio politikaren biktimak. Katixa Agirre idazleak *Irati gurasoekin Eus-kal Herrian* kanpainaren manifestuan adierazi du haurren kontrako indarke-riaren erroa dela adingabeak bigarren mailako pertsona gisa kontsideratzea, “gurasoen ardura soila edo gurasoen ondasunak edo gurasoen luzapen hu-tsak. Edozein kasutan ez dira kexatuko, ez dira gai, ahotsa altxatuta ere ez ditu inork entzungo”.

Hori sentitu du behin eta berriro Iru-ne Costumeroren alabak epaileei eta gizarte zerbitzuetako langileei kontatu dienean aita tratatu txar emaila duela. Dena den, amari tutoretza kendu diote Gurasoen Alienazio Sindromea (GAS) leporatuta eta aitarekin bizitzera behartu dute. Costumerok argi du GAS asmaki-zun matxistaren erroa zein den: justizia patriarkalarentzat bai emakumeak zein umeak gezurti hutsak direla.

Emakumeen eta haurren eskubideen borrokak uztartzeko Agirreren deiare-kin bat nator: “Feminismoak ideia iraul-tzaile hau zabaldu zuen: emakumeak ere pertsonak dira. Antzeko lelo iraultzailea bota beharra dago: umeak ere pertsonak dira”. ●